

LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL



ADMINISTRAZIOA
ETA KUDEAKETA

ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO TEKNIKARIA

6. lanbide: **Giza Baliabideetako Administrazio-Eragiketak**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Argitalpena: 1.a, 2010eko apirila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila


Egilea: Juan Carlos Pérez Muro

Edizioa eta koordinazioa: Victor Marijuán Marijuán
KUALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta maketazioa: TRESDETRES

Lege-gordailua: BI-380/2010



Orduak: 132
Unitateen kop.: 11

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzer eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzer gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

	UNITATE DIDAKTIKOEN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04. or
0	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	05. or
1	1. unitate didaktikoa: Langileak erakartzeko eta hautatzeko prozesuaren analisia	08. or
2	2. unitate didaktikoa: Langileak prestatzeko eta konpentsatzeko prozesuen administrazio-izapideak	12. or
3	3. unitate didaktikoa: Lan-kontratua, betetzea eta modalitateak	16. or
4	4. unitate didaktikoa: Lan-kontratua aldatu, eten eta amaitzea.	20. or
5	5. unitate didaktikoa: Gizarte Segurantzaren prestazioen analisia.	24. or
6	6. unitate didaktikoa: Soldata-ordainagiriak egitea: hileko eta eguneko ordainsariak.	28. or
7	7. unitate didaktikoa: Soldata-ordainagiriak egitea: aldi baterako ezintasuna.	33. or
8	8. unitate didaktikoa: Soldata-ordainagiriak egitea: kitoak eta kasu bereziak.	38. or
9	9. unitate didaktikoa: Gizarte-aseguruak betetzea eta DIE sistema	42. or
10	10. unitate didaktikoa: Laneko jarduerako gertakariak kudeatzea	46. or
11	11. unitate didaktikoa: Laneko arriskuak identifikatzea eta horien prebentzioa kudeatzea.	51. or



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK						UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5	M6		
						UD0: Moduluaren aurkezpena.	1 h
X						UD1: Langileak erakartzeko eta hautatzeko prozesuaren analisia.	7 h
	X					UD2: Langileak prestatzeko eta konpentsatzeko prozesuen administrazio-izapideak	7 h
		X				UD3: Lan-kontratua, betetzea eta modalitateak.	10 h
		X				UD4: Lan-kontratua aldatu, eten eta amaitzea.	8 h
		X	X			UD5: Gizarte Segurantzaren prestazioen analisia.	10 h
			X			UD6: Soldata-ordainagiriak egitea: hileko eta eguneko ordainsariak.	15 h
			X	X	X	UD7: Soldata-ordainagiriak egitea: aldi baterako ezintasuna.	20 h
			X			UD8: Soldata-ordainagiriak egitea: kitoak eta kasu bereziak.	10 h
			X			UD9: Gizarte-asegurua betetzea eta DIE sistema	12 h
				X		UD10: Laneko jarduerako gertakariak kudeatzea.	16 h
					X	UD11: Laneko arriskuak identifikatzea eta horien prebentzioa kudeatzea.	16 h
GUZTIRA							132 ordu

1. multzoa: Langileak erakartzeko eta hautatzeko prozesuetako administrazio-izapideak egitea.
2. multzoa: Langileen prestakuntzaren, garapenaren eta konpentsazioaren administrazio-izapideak egitea.
3. multzoa: Lan-kontratuaren eta hura aldatzearen eta amaitzearen dokumentazioa lantzea.
4. multzoa: Soldata ordaintzearekin eta berezko betebeharrekin lotzen den dokumentazioa lantzea.
5. multzoa: Lan-harremanetako gertakariei dagokien dokumentazioa lantzea.
6. multzoa: Giza baliabideak osotasunean kudeatzeko kalitate-prozedurak aplikatzea.



0. unitate didaktikoa: 0: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: 1 ordu							
Ikaskuntzaren helburuak:									
<ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluen garapeneren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluen unitate didaktikoen arteko eta moduluen eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 									
EDUKIAK		Multzoak							
		1	2	3	4	5	6	7	8
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 								
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluen ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluen helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 								
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluen garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 								



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 min.	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 min.	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. PowerPoint-en egindako aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 min.	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten jakintzen identifikazioa.	5	30 min.	X	X	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeo aukera emango dio irakasleari.	Galdetegiak.



OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: LANGILEAK ERAKARTZEKO ETA HAUTATZEKO PROZESUAREN ANALISIA		Iraupena: 6 ordu					
<p><i>IE1. Langileak erakarri eta hautatzeko prozesuetako administrazio-izapideak egiten ditu eta prozesu horrekin lotzen den dokumentazioa deskribatzen du.</i></p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Lan-harremanen antolamenduaren alderdi nagusiak deskribatzea. 2. Giza baliabideetako sailaren funtzioak eta zereginak zerrendatzea, baita antolakundeetako giza kapitala kudeatzeko politika nagusiak ere. 3. Langileak erakartzeko eta hautatzeko ohiko teknikak identifikatzea. 4. Hautespren-prozesu batean, proba eta elkarrizketetan laguntzeko lanak identifikatzea, ohiko bideak edo gaikako bideak erabiliz. 5. Langileak hautatzeko prozesu bat egiteko beharrezko baliabideak, denborak eta epeak identifikatzea. 6. Elkarrizketa motak bereiztea eta horien ondoriozko komunikazioak lantzea. 7. Langileak lan berri horretara molda daitezten errazteko beharrezko informazioa biltzea. 							
EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Langileak erakartzeko eta hautatzeko teknikarik ohikoenak identifikatzea: langileak biltzeko kanpoko eta barneko iturriak. • Langileak hautatzeko metodoak aztertzea: hautespren-probak, elkarrizketak, talde-dinamika, ebaluazio-zentroak. • Langileak hautatzeko prozesu bat egiteko beharrezko baliabideak, denborak eta epeak identifikatzea. • Hautespren-prozesu batean proba eta elkarrizketetan laguntzeko lanak egitea, ohiko bideak edo bide telematikoak erabiliz. 	X					
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Lan-zuzenbidea: jatorria eta xedea. • Lan-araudiaren iturriak: <ul style="list-style-type: none"> – Arauak eta horien sailkapena. – Arauen hierarkia. – Aplikazio-organismoak. • Giza Baliabideetako sailaren funtzioak. • Enpresako giza kapitala kudeatzeko politikak: hautesprena, prestakuntza eta motibazioa. 	X					



JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Lanaren eskubideak lan-baldintzen bilakaeran izan duen garrantzia aintzat hartzea. Kudeaketa eraginkorra lortzeko ezarritako kalitate-prozesuak aplikatzearen garrantzia baloratzea. Langileak lan berrira molda daitezzen erraztearen garrantzia baloratzea. 					X	X	X			
JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK					
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den					
			Ir.	Ik.								
J1-E1 Hasierako ebaluazioa. UDaren aurkezpena.	1-2	20 min.	X	X	Ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko dira, unitate didaktikoa modularen barruan kokatuko da, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko da. Langileak hautatzeko eta erakartzeko prozesuen errealitatera hurbilduko da. Unitate honetarako eta gainerako unitateetarako Power Point bidezko edo antzeko formatuen bidezko aurkezpenak egitea proposatzen da, edo, ahal izanez gero, Moodle plataforma bidez egitea, ikasleekin elkarreaginez jardun ahal izateko.	Gainerako moduluekiko zuzeneko lotura ezagutzeko. Ikasleek unitatearen garapenean parte hartu ahal izateko, aurretik dituzten ezagupenak eta esperientzia gaineratuz, eta ezagutza horien eta ikaskuntzaren xede diren ezagupenen arteko loturak ezartzeko. Modularen gaineko interesa eta motibazioa eragiteko.	OCDA. Irakasleak egindako galderak. UDaren aurkezpenaren eskema grafikoa, gardenki bidez edo arbelean.					
J2 Lan-zuzenbidearen jatorri eta xedeari buruzko eskema aurkeztea.	1-2-3	40 min.	X		Lan-zuzenbidearen jatorriak eta xedea aurkeztuko dira.	Gure gizartean lan-zuzenbideak duen garrantzia baloratzeko (edo ulertzeko) eta lan-jarduerak historian izan duen bilakaera ezagutzeko.	Aurkezpenaren eskema grafikoa, Power Point bidez, gardenki bidez edo arbelean.					
J3-E2 Lan-zuzenbidearen iturri buruzko azalpena, eta lan-araudiari, hierarkiari eta aplikazio-printzipioei buruzkoa.	1-2	1 h	X		Irakasleak lan-zuzenbidearen iturriak aurkeztuko dizkie ikasleei, eta jarraitzen den hierarkia eta aplikatzen diren printzipioak emango dizkie aditzera.	Gaur egun dagoen lan-araudia eta horren hierarkia ezagutzeko, eta zer printzipioetan oinarrituta aplikatzen den jakiteko.	Ordenagailua eta kanoia. Arbela. Power Point. Moodle plataforma.					



					<p>Azalpena aurkezpenetan oinarrituko da eta/edo Hot Potatoes gisako jardueren bidez egingo da.</p> <p>Ikasleek gaiari dagokion jarduera-fitxa bete beharko dute. Fitxa horren bitartez, eskuratutako ezagupenen maila ebaluatu ahal izango da.</p>		
J4 Giza Baliabideetako sailaren funtzioei buruzko azalpena. Langileen fitxaren eredu bat diseinatzea eta egitea.	Guztiak	2 h	X	X	<p>Irakasleak giza baliabideetako sailaren funtziorik bereizgarriak aurkeztuko dizkie ikasleei. Gainera, ikasleek, taldeka, gaur egun dauden edo etorkizunean egon daitezkeen langileen eta hautagaien datuak bildu ahal izango dituen langileen fitxaren eredu bat diseinatuko dute, baita egin ere.</p> <p>Azalpena laguntzeko kanoi bidezko Power Pointeko aurkezpenak erabili ahal izango dira, Moodle plataforma baliatu ahal izango da, edo Hot Potatoes gisako jarduerak egin ahal izango dira.</p>	Unitatearen gunea osatzen duten oinarriak ezartzeko. Enpresako giza baliabideetako sailaren funtzioak eta egitekoa eskematizatzen. Langileen datu-baseekin ohitzeko.	Powerpoint. Moodle plataforma, Hot Potatoes gisako jarduerak.
J5-E3 Filma ikustea eta zineforumaren fitxa betetzea.	3-4-5-7	2 h	X	X	<p>Irakasleak jardueraren helburuak argituko ditu, eta ikasleek filma ikusiko dute eta zineforuma egingo dute. Ikasleek eztabaidan hartuko dute parte.</p> <p>Eztabaidaren ondoren taldeko pertsona bakoitzak filmari buruzko fitxa bete beharko du.</p>	Langileak erakartzeko eta hautatzeko prozesuetako teknikarik ohikoenak identifikatzeko. Gaur egungo gizartean hautematen diren ohiko egoerak eta errealitateak ezagutzeko.	"El método" filma. Bete beharreko fitxa.



E4 Berariazko ebaluazio-jarduera.	Guztiak	1 h		X	Jarduera praktikoa gidatua egingo da taldean. Irakasleak banakako errendimendua baloratzeko ariketa bat emango die ikasleei. Ariketa hori ebaluazio-jarduera gisa ez ezik, zalantzak eta kontzeptu okerrak argitzeko ere izango da baliagarria. Irakasleak fitxa bat bete beharko du. Bertan, ariketaren emaitzak jasoko ditu.	Jarduera honen helburua da taldeen inguruan ikusitako guztia laburtzea. Irakasleak betetako fitxak ebaluazio-elementu gisa balioko du.	Ikasleari buruzko datuak jasotzea erraztuko duten fitxa edo dokumentuak.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> • "El método Grönholm" filma ikustea proposatu da; haatik, antzeko beste filma batekin ordezkatu ahal izango da (Casual day, eta abar). • Jarduera eta praktika guztiak kontzeptuen eta prozeduren arabera ebaluatuko dira, baina baita jarreraren arabera ere. Horretarako, irakasleak ezarritako eta ikasleei modularen hasieran jakinarazitako ebaluazio-irizpideei jarraituko zaie. 							



2. unitate didaktikoa: LANGILEAK PRESTATZEKO ETA KONPENTSATZEKO PROZESUEN ADMINISTRAZIO IZAPIDEAK		Iraupena: 7 ordu					
<p><i>IE2. Langileen prestakuntza, garapen, konpentsazio eta onuren arloko prozesuen administrazio-izapideak egiten ditu eta izapide horietan sortzen den dokumentazioa ezagutzen du.</i></p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Etengabeko prestakuntzako planen ezaugarriak deskribatzea, baita langileen karrera-planak ere. 2. Prestakuntza-jarduerarako beharrezko dokumentazioa prestatzea, hala nola eskuliburuak, zerrendak, ordutegiak, eta kontrol-orriak. 3. Hurbilen dauden edo garrantzitsuenak diren prestakuntza-entitateak bilatzea, identifikatzea eta sailkatzea, batez ere bitarteko telematiko bidez. 4. Prestakuntzaren diru-laguntzarako iturri nagusiak sailkatzea, zenbatekoen eta eskakizunen arabera. 5. Prestakuntzako eta birziklatzeko jardueren zerrendak antolatzea, diruz lagundutako programen arabera. 6. Prestakuntza-ekintzen informazioa biltzeko prozesua identifikatzea, parte-hartzaileetako bakoitzaren txosten kuantitatiboekin batera –dokumentalak eta informatikoak–. 7. Datu-baseetan oinarritako kontsultak egitea adierazitako iragazkiekin, eta zerrendak eta txostenak egitea. 8. Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudia bere mailan aplikatzea, batez ere informazioaren segurtasunari, konfidentzialtasunari eta integritateari dagokionez eta informazioa mantentzeari eta eskuragarri izateari dagokionez. 9. Bertaratzea, aldi baterako ezintasuna, baimenak, oporrak eta antzekoak kontrolatzeko datuak biltzen dituzten formularioak lantzea. 10. Datu-baseen segurtasun-kopiak aldi behin egiteko prozesua identifikatzea eta aztertzea. 							
EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza-jarduera baterako beharrezko dokumentazioa prestatzea: esku-liburuak, zerrendak, ordutegiak, kontrol-orriak. • Prestakuntza-eskaintzak proposatzeko prestakuntza-entitate egokiak identifikatzea eta horiekin harremanetan jartzea. • Prestakuntzaren diru-laguntzarako iturri nagusiak sailkatzea, zenbatekoen eta eskakizunen arabera. • Prestakuntzako eta birziklatzeko jardueren zerrendak antolatzea, diruz lagundutako programen arabera. • Parte-hartzaileen prestakuntza-ekintzei buruzko informazioa biltzea. • Langileentzat interesgarria izango den prestakuntzari, garapenari, konpentsazioari eta onurei buruzko informazioa eguneratzea. • Langileen konpentsazioak, pizgarriak eta onurak kontrolatzea. 		X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Motibazioarekin eta prestakuntzarekin lotzen diren administrazio-prozedurak eta politikak. • Motibazioa lanean: <ul style="list-style-type: none"> – Motibazioari buruzko teoriak. – Mekanismo motibatzaileak. 		X				



	<ul style="list-style-type: none"> – Giza baliabideak kudeatzeko ereduak. • Prestakuntza <ul style="list-style-type: none"> – Helburuak eta motak. – Langileen etengabeko prestakuntzako plana eta karrera-plana. – Prestakuntza, bezeroari orientabideak emateko ikuspegia, aurrekontua, metodologia eta prestakuntza-teknikak kudeatzea eta antolatzea. 				X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Motibazioak lan-giroan duen eragina baloratzea. • Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena aintzat hartzea. • Komunikazioa lan-harremanen funtsezko balio gisa baloratzea. • Etengabeko prestakuntzak pertsonen lanbide-ibilbidean duen garrantzia baloratzea. • Informazioaren segurtasunari, konfidentziasunari, integritateari, mantentzeari eta eskuragarritasunari dagokionez, datuak babesteari buruzko araudia betetzearen garrantzia baloratzea. 				X				
JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK		
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den		
			Ir.	Ik.					
J1-E1 Hasierako ebaluazioa. UDaren aurkezpena.	1-2	20 min.	X	X	Ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko dira, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko da, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko da. Etengabeko prestakuntzako eta motibazioko prozesuen errealitateari hurbilduko dira ikasleak. Unitate honetarako eta gainerako unitateetarako Power Point bidezko edo antzeko formatuen bidezko aurkezpenak egitea proposatzen da, edo, ahal izanez gero, Moodle plataforma bidez egitea, ikasleekin	Gainerako moduluekiko zuzeneko lotura ezagutzeko. Ikasleek unitatearen garapenean parte hartu ahal izateko, aurretik dituzten ezagupenak eta esperientzia gaineratuz, eta ezagutza horien eta ikaskuntzaren xede diren ezagupenen arteko loturak ezartzeko. Moduluen gaineko interesa eta motibazioa eragiteko.	Powerpoint. Moodle plataforma.		



					elkarreraginez jardun ahal izateko.		
J2 Gaur egun dauden motibazioaren inguruko teoriaren eskema egitea eta aurkeztea.	1	40 min.	X	X	Irakasleak motibazio-teoriak aurkeztuko dizkie ikasleei. Ondoren, ikasleek enpresan aplikatu daitezkeen motibazio-jardueren programa egingo dute, eta kasu bakoitza zein multzoren barruan sartzen den adieraziko dute.	Lan-motibazioaren garrantzia ulertzeko. Motibazio hori izango duen lan-jardueraren eta motibazio hori izango ez duen lan-jardueraren desberdintasuna baloratu eta alderatu ahal izateko.	Arbela Powerpoint. Moodle plataforma, Hot Potatoes gisako jarduerak.
J3 Gaur egun dauden pizgarri-sistemei dagokien eskema egitea eta aurkeztea.	1	1 h	X		Irakasleak gaur egun dauden pizgarri-sistemei buruzko aurkezpena egingo du.	Pizgarri-sistema egokiak duen garrantzia ulertzeko eta baloratzeko.	Arbela Powerpoint. Moodle plataforma, Hot Potatoes gisako jarduerak.
J4-E2 Alegiazko enpresa baterako simulatutako pizgarri-sistema sortzeko ariketa, sistema horrek aurretik adostutako zenbait eskakizun bete beharko ditu.	1-2	2 h		X	Ikasleek, taldeka, proposatutako ariketa diseinatu, idatzi eta azaldu beharko dute. Jarduera osotasunean ebaluatuko da (diseinua eta aurkezpena).	Pizgarri-sistema zuzena eta baliozkoa sortzearen zailtasuna ulertzeko. Gaur egun dauden faktoreen aniztasuna eta horietako gehienak barnean hartzearen zailtasuna ulertzeko.	Arbela Powerpoint. Moodle plataforma.
J5 Prestakuntza eta prestakuntza-ibilbideak azaltzea, ikuspegi globalaren barruan sartuta.	3-4-5-6	1 h	X		Irakasleak lanbide-heziketaren jatorriari, hezkuntza-sistemaren barruan duen egitekoari, lanbide-kualifikazioei eta lanbide eta prestakuntzako ibilbideei buruzko aurkezpena egingo die ikasleei, betiere lanaren ikuspegitik.	Etorkizunean izan nahi den lanbidearekin lotuta, prestakuntza-ibilbidea definitzearen garrantzia baloratzeko. Pertsonen lanbide-interesei buruz gogoeta egiteko. Lan-merkatuak eskaintzen dituen lanerako aukerak kontuan izanik, lanbide-interesei eta prestakuntza-ibilbideei dagokienez ondo orientatzearen garrantzia ulertzeko.	Arbela Powerpoint. Moodle plataforma, Hot Potatoes gisako jarduerak. Hainbat web-orritarako sarrera eta horiek maneiatzea.



J6 Lan-merkatua, enplegu-merkatuaren gaur egungo joerak eta lan-merkatuan izandako aldaketak azaltzea. Lan-merkatuari eta enplegu-hobi berriei buruzko informazioa ematea.	6-7	1 h	X		Irakasleak gaur egungo lan-merkatuari, joerei, izandako aldaketei, azken berriei eta enplegu-hobie buruzko azalpena egingo du.	Lan-merkatuari buruz duen informazioa zabaltzeko eta eguneratzeko. Lan-merkatuan izandako aldaketak ezagutzeko eta laneko informazio-iturriak eta egin daitezkeen enplegu-hobiak ezagutzeko.	Arbela Powerpoint. Moodle plataforma, Hot Potatoes gisako jarduerak. Hainbat web-orritarako sarrera eta horiek maneiatzea.
J7-E3 Proposatutako lanbide-tituluarekin lotzen diren enplegu-eskaintzen inguruko eskakizunei, epeei eta prestakuntzari buruzko informazioa biltzen duen fitxa lantzea.	7-8-9-10	1 h	X	X	Proposatutako lanbide-tituluetakoren batekin lotzen den enplegu-eskaintza baten inguruko eskakizunei eta prestakuntzari buruzko beharrezko informazioa jasoko duen fitxa egingo dute ikasleek, modu autonomoan. Jarduera amaitu ondoren, gainerako taldeek eta irakasleak berak batera ebaluatuko dute jarduera.	Informazio-iturrien eta web-orri interesgarrien erabilerarekin ohitzeko.	Arbela Powerpoint. Moodle plataforma, Hot Potatoes gisako jarduerak. Hainbat web-orritarako sarrera eta horiek maneiatzea.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> • Hainbat web-orri eta enplegu-atari iradokiko zaizkie: <ul style="list-style-type: none"> – Enpleguko Institutu Nazionala. Enplegu Zerbitzu Publikoa. – Enplegua sustatzeko programak (FIP) – Ploteous enplegu-atariak. 							



3. unitate didaktikoa: LAN KONTRATUA, BETETZEA ETA MODALITATEAK

Iraupena: 10 ordu

IE3. Kontratazio-prozesuari, lan-egoeraren aldaketari eta kontratuaren amaierari buruzko dokumentazioa egiten du, indarrean dagoen araudia identifikatuz eta aplikatuz.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Espainiako Konstituzioan, Langileen Estatutuan, Hitzarmen Kolektiboetan eta kontratuetan ezarritako lan-baldintzen alderdirik adierazgarrienak definitzea.
2. Kontratazio-prozesuaren faseak eta lan-araudiaren arabera ohikoenak diren lan-kontratuen motak ezagutzea.
3. Lan-kontratazioko ereduak betetzeko prozesua aztertzea.
4. Kontratazioaren inguruko dokumentu ofizialak lortzeko prozesua xehatzea, bidezko organismo publikoen web-orriak erabiliz.
5. Gizarte Segurantzaren afiliatzeko eta alta hartzeko prozesuak definitzea.
6. Lan-baldintzei buruzko taulak, baremoak eta erreferentziak lortzea: hitzarmen kolektiboa, Gizarte Segurantzarako kotizazio-tasak eta -oinarriak, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenak.
7. Lan-baldintzei, ordainketa-eppei eta atzeratzeko formulei buruzko Gizarte Segurantzaren kotizazio-arauak aplikatzea.
8. Bertaratzea kontrolatzearen oinarriko txostenak egiteko prozesua eskematizatzea eta sekuentziazatzea, testu-prozesuko aplikazioak erabiliz.
9. Informazioa kudeatzean eta kontserbatzean, epe, konfidentziasun, segurtasun eta diligentziako irizpideei jarraitu zaien behatzea.
10. Datu-baseen segurtasun-kopiak aldi berean behin egiteko prozesua identifikatzea eta eskematizatzea.

EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Espainiako Konstituzioan, Langileen Estatutuan, Hitzarmen Kolektiboetan eta kontratuetan ezarritako lan-baldintzen alderdirik adierazgarrienak aztertzea. • Lan-kontratuak betetzea. • Gizarte Segurantzaren afiliatzeko eta alta hartzeko prozesuak aztertzea. • Lan-baldintzei buruzko taulak, baremoak eta erreferentziak lortzea: hitzarmen kolektiboa, Gizarte Segurantzarako kotizazio-tasak eta -oinarriak, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenak. • Lan-baldintzei, ordainketa-eppei eta atzeratzeko formulei buruzko Gizarte Segurantzaren kotizazio-arauak aplikatzea. • Kontratu-modalitateak ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera. • Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean (LELTB) arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. • Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginaren eta hitzarmen kolektiboen artikulua aztertzea, lan-jardunari dagokionez. 			X			
				X			
				X			
				X			
				X			
				X			
				X			



KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak. Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak. Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). 						X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Lana arautzearen beharra baloratzea. Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa. Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetarako. Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratzea, lan-jardueraren hobekuntza gisa. Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea. Informazioa kudeatzean, epeak betetzeko, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta segurtasunez eta diligenziaz jarduteko konpromisoa hartzea. 						X				
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK			
ZER egingo duzun edo duten Jardura mota		Helburu inplikatuak.	D	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den	
				Ir.	Ik.						
J1-E1 Hasierako ebaluazioa. UDaren aurkezpena.		1	20 min.	X	X	Ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko dira, unitate didaktikoa moduluen barruan kokatuko da, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko da. Irakasleak gaiaren sarrerako aurkezpena baino ez du egingo, hurrengo jardueretarako abiapuntu gisa.	Gainerako moduluekiko zuzeneko lotura ezagutzeko. Irakasleek unitatearen garapenean parte hartu ahal izateko, aurretik dituzten ezagupenak eta esperientzia gaineratuz, eta ezagutza horien eta ikaskuntzaren xede diren ezagupenen arteko loturak ezartzeko. Moduluen gaineko interesa eta motibazioa eragiteko.	OCDA. Irakasleak egindako galderak. UDaren aurkezpenaren eskema grafikoa, gardenki bidez edo arbelean.			



J2 Lan-kontratuaren kontzeptua azaltzea.	1-2	40 min.	X		Irakasleak lan-kontratuaren kontzeptua, horren bilakaera, ohikoenak diren kontratuak eta gaur egungo lan-merkatuko lan-errealitatea azalduko du.	Lan-merkatuko errealitateaz eta ohiko jardunbideez jabetzeko eta legez kontrako jardunbideak edo diskriminatzaileak baztertzeko, horien arrazoia edozein izanik ere.	Aurkezpenaren eskema grafikoa, Power Point bidez, gardenki bidez edo arbelean.
J3 Lan-kontratuaren elementuak eta alderdi kontratugileak azaltzea eta horiei buruzko eskema egitea.	2	1 h	X		Irakasleak kontratuaren elementuei buruzko eta alderdi kontratugileei buruzko azalpena eta eskema egingo du.	Kontratuaren elementuak identifikatzeko eta horien baliagarritasuna ezagutzeko eta baloratu ahal izateko.	Arbela Powerpoint. Moodle plataforma, Hot Potatoes gisako jarduerak. Hainbat web-orritarako sarrera eta horiek maneiatzea.
J4 Lan-kontratuaren forma eta edukia, kontratuaren baliogabezia, "lege-iruzurra" eta probaldia azaltzea, eta horiei buruzko eskema egitea.	2-3	1 h	X		Irakasleak lan-kontratuaren forma eta edukia azalduko du eta horri buruzko eskema egingo du. Kontratuaren baliogabezia eta "lege-iruzurreko" kasuak mugatuko ditu.	Lan-kontratuaren agertzen diren funtsezko eta gutxieneko edukiak identifikatzeko, eta baliorik gabeko edo legez kontrako kontratuak identifikatzeko.	Arbela Powerpoint. Moodle plataforma, Hot Potatoes gisako jarduerak. Hainbat web-orritarako sarrera eta horiek maneiatzea.
J5-E2 Kontratuen modalitateak islatuko dituen eskema/taula egitea.	Guztiak	3 h	X	X	Irakasleak kontratuaren modalitateak islatuko dituen taula/laburpena egitea proposatuko du. Kontratuak funtsezko ezaugarrien arabera sailkatuko dira. Taula/laburpena osatzeko jarraibideak azaldu ostean, ikasleek bidezko datuekin osatuko dute fitxa. Jarduera hori ebaluaziorako erabili ahal izango da.	Kontratuen modalitateak identifikatzeko.	Arbela Powerpoint. Moodle plataforma, Hot Potatoes gisako jarduerak. Hainbat web-orritarako sarrera eta horiek maneiatzea. Kontratazio modalitateen fitxa/laburpena
J6-E3 Rol-jokoa.	3-4	2 h	X	X	Irakasleak rol-jokoa egitea proposatuko du. Rol-jokoa askotariko ezaugarrietako enplegu-eskatzaileak eta hainbat enplegu-eskaintza izango dira abiapuntu, eta hautagaiak edo enplegu-eskatzaileak eta kontratu modalitateak uztartzeko proposamenak	Kontratu-modalitateak eta dagoen eskariarekiko duten egokitzapena barneratzeko.	Arbela. Powerpoint. Moodle plataforma. Hainbat web-orritarako sarrera eta horiek maneiatzea. Rol-jokoa egiteko beharrezko fitxak.



					egin beharko dira taldean. Jarduera hori ebaluaziorako erabili ahal izango da. Ikasleek jokoaren protagonista gisa hartuko du parte, eta dagokien rola bete beharko dute.		
J7 Modalitate bereziei, aldi baterako laneko enpresei eta kasu bereziei buruzko azalpenak ematea.	7-8-9-10	1 h	X		Irakasleak kontratazio modalitate bereziak aurkeztuko ditu. Aldi baterako laneko enpresen araudiak eta beste kasu berezi batzuk aztertuko ditu.	Ohikoak ez diren modalitateak eta kontratazioko kasu bereziak ezagutzeko.	Arbela. Powerpoint. Moodle plataforma, Hot Potatoes gisako jarduerak. Hainbat web-orritarako sarrera eta horiek maneiatzea. Rol-jokoa egiteko beharrezko fitxak.
E4 Berariazko ebaluazio-jarduera.	Guztiak	1 h		X	Jarduera praktikoa gidatua egingo da taldean. Irakasleak banakako (taldearen aurrean) errendimendua baloratzeko ariketa bat emango die ikasleei. Ariketa hori ebaluazio-jarduera gisa ez ezik, zalantza eta kontzeptu okerrak argitzeko ere izango da baliagarria. Ikasleak fitxa bat bete beharko du. Bertan, ariketaren emaitzak jasoko ditu.	Jarduera honen helburua da taldeen inguruan ikusitako guztia laburtzea. Ikasleak betetako fitxak ebaluazio-elementu gisa balioko du.	Ikasleari buruzko datuak jasotzea erraztuko duten fitxa edo dokumentuak.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> OCDan aipatzen den bezalaxe, lan-kontratuen gaia <i>Laneko prestakuntza eta orientabidea</i> modulurekin gainjartzen da. Kontuan izan behar da, unitate didaktiko honen edukiaren inguruan hartutako erabakian ezartzen denez, <i>Giza baliabideetako administrazio-eragiketarako</i> moduluan gaiaren sarrera egingo dela –kontratazio modalitateak, aurretiazko kontzeptuak eta abarren sarrera egingo da– eta gaia <i>Laneko prestakuntza eta orientabidea</i> moduluan sakonduko dela. 							



4. unitate didaktikoa: LAN KONTRATUA ALDATU, ETEN ETA AMAITZEA		Iraupena: 8 ordu					
<p><i>IE3. Kontratazio-prozesuari, lan-egoeraren aldaketari eta kontratuaren amaierari buruzko dokumentazioa egiten du, indarrean dagoen araudia identifikatuz eta aplikatuz.</i></p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> Lan-kontratua aldatu, eten eta amaitzeko egoerei dagozkien lan-kontratazioaren ereduak betetzeko prozesua aztertzea. Dokumentu ofizialak dagozkien organismo publikoen web-orriak erabiliz lortzeko simulazioa egitea. Gizarte Segurantzaren afiliatzeko eta alta hartzeko prozesuak definitzea. Lan-baldintzei, ordainketa-eperei eta atzeratzeko formulei buruzko Gizarte Segurantzaren kotizazio-arauak aplikatzeko prozesua aztertzea. Indarrean dagoen araudiaren arabera lan-kontratua aldatzeko, eteteko eta amaitzeko kausak eta prozedurak identifikatzea, eta kitoaren oinarritzko elementuak identifikatzea. Langileen espedienteetan sortutako informazioa erregistratzeko prozesua xehatzea. Bertaratzearen kontrolaren jarraipena egiteko prozesua sekuentziatzea, enpresaren eragimena lortzeko. Bertaratzeara kontrolatzearen oinarritzko txostenak egiteko prozesua aztertzea, testu-prozesuko eta aurkezpeneko aplikazioak erabiliz. Informazioa kudeatzean eta kontserbatzean, epe, konfidentziasun, segurtasun eta diligenziak irizpideei jarraitu zaien behatu beharra nabarmentzea. Aldian behin datu-baseen segurtasun-kopiak egitearen beharraz jabetzea. 							
EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Lan-kontratuak betetzeko jarduna sekuentziatzea eta simulatzea, lan-kontratua aldatu, eten eta amaitzeari dagokionez. Gizarte Segurantzaren afiliatzeko eta alta hartzeko prozesuak aztertzea. Lan-baldintzei, ordainketa-eperei eta atzeratzeko formulei buruzko Gizarte Segurantzaren kotizazio-arauak aplikatzea. Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean (LELTB) arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. Indarrean dagoen araudiaren arabera lan-kontratua aldatzeko, eteteko eta amaitzeko kausak eta prozedurak identifikatzea, eta kitoaren oinarritzko elementuak identifikatzea. Langileen espedienteetan informazioa erregistratzea. 			X			
				X			
				X			
				X			
				X			
				X			



KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Kontratua aldatu, eten eta amaitzea, kitoa. 						X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Lana arautzearen beharra baloratzea. Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa azaltzea. Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetarako. Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratzea, lan-jardueraren hobekuntza gisa. Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea. Informazioa kudeatzean, epeak betetzeko, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta segurtasunez eta diligenziaz jarduteko konpromisoa hartzea. 						X	X	X	X	
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK			
ZER egingo duzun edo duten Jarduera mota		Helburu inplikatuak	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den			
				Ir.	Ik.						
